



Berripapera-ren aurreko alean iragarri bezala, **Euskararen Nazioarteko Eguna** ospatu zen abenduaren 3an. Hainbat ekitaldi burutu ziren bateko eta besteko hiri eta herrietan "Esanak esan, euskara: badugu hitza, badugu giltza" lemapean. Guztietan azpimarragarriena, egunaren bezperan Ibarretxe lehendakariak Gasteizen egin zuen adierazpena. Bertan, estatuko hizkuntzak Espainian koofizialak izan daitezen eskatu zuen lehendakariak: "Euskararen, katalanaren eta galegoaren bene-benetako koofizialtasuna onartzeak sinesgarritasun handiagoa emango lioke Espainiar Gobernuak euskara, katalana eta galegoa Europar Batasuneko hizkuntza ofizial bilakatzeko zabaldu duen proposamenari; seguruenik aurrera egingo ez duenari". Lehendakariak, gainera, aipatutako hiru hizkuntzak Europar Batasuneko bidea zein den ere adierazi zuen: "Euskara, katalana eta galegoa ofizial izatea Estatu osoan, alde zuzenetik. Eta horixe izanez gero, ofizialak lirateke Europar Batasunean".

Kultura sailburu den Miren Azkaratek ere hitza hartu zuen ekitaldian, eta EBPN garatzen ari diren udalen lana eskertu eta txalotu zuen.



Eusko Jaurlaritzaren Kultura Saileko Gazte-ria eta Gizarte-ekin-tza Zuzendaritzaren menpean dagoen Gazteriaren Euskal Behatokiak **Euska-diko Gazteak 2004** ikerketa soziologikoa kaleratu berri du. Bertan gazteen

kolektiboaren ikuspegi zabala eman nahi izan da, eta horretarako gazteen eguneroko bizitzaren alderdi guztiak aztertu dira, horien artean euskara. Azterketaren zuzendaritza teknikoa Lehendakarietzako Prospekzio Soziologikoen Kabineteara izan da eta aztertu den unibertsoa Euskal Autonomia Erkidegoko 15 eta 30 urte bitarteko gazteek osatu dute.

Euskarari buruzko emaitza nagusie dagokienez, EAEko gazte gehienak elebidunak dira, hau da, euskaraz eta gaztelaniaz, ondo hitz egiteko (%56), idazteko (%57), irakurtzeko (%58) eta entzuten dutena ulertzeko (%62) gai dira.

Horrez gain, harremanetan euskara nagusiki erabiltzen duten gazteak lautik bat dira gutxi gorabehera (%27). Beste hiru laurdenak euskara gaztelania bezainbeste edo gutxiago erabiltzen du lagunartean eta etxekoekin. Batez ere euskaraz irakurtzen duten gazteak, bestalde, %13 dira.


Bilakaerari dagokionez, esan dezakegu euskararen ezagutza eta erabilera, biak, igo egin direla eta igotzen ari direla gazteen artean ere, nahiz eta erabilera ez den ezagutzaren heinean igotzen ari.

Azpimarratzekoa da, halaber, gazte gehienek iritziz (%51) euskara sustatzeko ahalegin handiagoa eta baliabide gehiago jarri beharko luketela herri-administrazioek.



Aurreko saioretan egindakoren haritik, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak **publizitate kanpaina** berriari ekin dio. Kanpaina hori, abenduan zehar garatu dena, luze-zabal ikusi ahal izan da egunkari, aldizkari eta zinema aretoetan. Kanpaina horrek, aginduzko formak alboan utziz, gonbitea egin nahi izan die herritarrei; euskararen erabilera-aren aldeko gonbitea hain zuzen ere. Horretarako lelo bikoitza eta,aldi berean, elkarren osagarria erabili da: "Direnak eta ez direnak zertzeko" eta " Esanak esan, euskara". Bada, era berean, nabarmendu beharkeko bestelakorik: publizitate arrunta baino haratago iritsi nahirik, kanpaina honek euskara eta bideo artea (Manu Arregi artistak egindako pieza) lotu ditu. Emaitza, jakinekoez denez, ikusgarria eta berritzailea izan da, gazteei gustatzeko modukoa.





Urratsez urrats, euskara sarrera egiten ari da lan munduan. *Berripapera*-ren abenduko alean, adibidez, euskara planak abiaraziak dituzten Euskal Autonomia Erkidegoko enpresen gainean jardun genuen. Maiatzean, berriz, *Ekin* lan hiztegia eta Fagor altzari-lantegiak kaleratu zuen hiztegia aipatu genituen. Ildo berean, **Enpresan Euskaraz** izeneko eskuliburu elektronikoa sortu du Elhuyar Aholkularitzak. Tresna hau CD euskarrian esku- ra daiteke eta edozein enpresaren barne-sarean erabiltzeko prestatuta dago.

Era berean, Euskalkidetza sortutako **Bilalan.net** atariak euskaraz lan egin nahi dutenei eta langile euskaldunak behar dituzten enpresa edo norbanakoei zerbitzua eskaintzen die.



Eusko Jaurlaritzak **Hizkuntzen Portfolio Europarra** argitaratu du berriki. Material didaktiko hau hizkuntzaren bat ikasten ari diren helduei laguntzeko diseinatua dago, bere ikasketa ongi bideratu eta hobetu dezaten. Europako Kontseiluak bere Erreferentzia Markoan landutako gaitasun-mailetan oinarrituta dago. Hizkuntzen Portfolio eredu hau EAQUALS (European Association for Quality Language Services) eta ALTE (Association of Language Testers in Europe) erakundeek elkarlanean prestatu zuten, Europako Kontseiluko Hizkuntza Bizien Atalak Strasbourgen koordinatzen duen proiektu pilotuaren baitan.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak EGA agiriaren bitartez ALTEn duen lekuari eskerrak, Portfolioaren euskal bertsioa prestatu ahal izan da. Portfolioaren argitalpen berri hau lau hizkuntzatan dago egina: euskaraz, gaztelaniaz, frantsesez eta ingelesez.



Argentinako euskaldunak elkarrengana biltzeko modua egiten ari dira. Oraindik orain, diaspora horretako arduradunek bere datu basea erabiltzeko aukera eskaini diote Argentinan bizi den senidearekin harremanetan jarri nahi duen euskal jatorrikoari. Ekimena



garrantzi handiko da, kontuan harturik hainbat euskaldun direla Argentinan eta, maiz, familiak sakabanatu egin direla eta bata bestearen azterna ere galdua dutela. Berri gehiago, **Euskal Argentinar diasporaren web gunean**: (www.diasporavascarg.com.ar).



30 urte bete ditu Debako Goaz antzerki taldeak. Urteurrena ospatzeko asmotan, argazki erakusketa antolatuta zuten Deban bertan, bai eta Daniel Landarten hitzaldia ere. Ekitaldi gorena, dena den, antzerki obra berriaren emanaldia izan zuten, hau da, *Adanen poema amaigabea* lanarena. Joseba Zulaika idazleak aspaldi idatzitako lan hau *Goaz* taldeko gidari den Lukas Dorron-sorok egokitu eta zuzendu du.

Kalean da irakaskuntza ertainetako 2004ko Urruzuno Literatur Lehiaketaren emaitza; hau da, **Sagastiberri 2004** argitalpena. Ohi denez, poesia eta prosa modalitateak bereizi ditu liburuak. Miren Agur Meaberen sarrera dakar hemeretzigarren edizioko idazlanak biltzen dituen Sagastiberri honek. Hemeretzi urtean, lauhun baino gehiago dira "urruzunotarrak", lehiaketara aurkeztu diren ikasleak, alegia; tartean, idazle izenari omen egiten dioten gazteak: Harkaitz Cano, Gari Berasaluze, Nagore Amondarain etab.



Gero eta gehiago dira lekuan lekuko euskararen gaineko ikerketak. Sarri, udalak berak dira era horretako lanak burutzeko bekak eskaintzen dituztenak. Adibidez, Urretxu eta Zumarragako udalek lagundurik, Xabier Lasa filologoak **Urretxu eta Zumarragako euskara** lana kaleratu du berriki. Berdin egin du Iñaki Gaminde irakasle eta ikertzaileak Bilboko euskara aztergai harturik. Honek, **Bilbotarron euskararen zuzuan** izeneko lana argitaratu du Asapala kultur taldearen laguntzaz.



Bietan ere liburu eta CD-Rom bana kaleratu dituzte ikertzaileek.



Hainbat dira etorkin-nak integratzeko planak garatzen ari diren erakunde eta elkar- teak. Nork bereari uko egin gabe, besterena ere modurik erraz eta egokienean jasotzea da plangintzen helburua. Oraintsu, ikasle etorkinak eskolatzeari buruzko gogoeta kaleratu du Sortzen-Ikasbatuaz elkarteak *Etorkinak eskolan, aniztasunaren trataeran eta kultur arteko hezkuntzan sakontzeko beste arrazoi bat* izeneko liburuan.

Era berean, eta urtearen hasierarekin bat, ohiko agendak ere kultur aniztasunaren erakusgarri dira. Adibide da HPS eta HABE erakundeena, *Egunez egun, esaldiz esaldi. 2005, 365 oinarriko esaldi euskaraz* izenez sei hizkuntzatan datorrena: euskaraz, errumanieraz, txineraz, wolofera, berebereraz eta arabieraz. Gainera, hainbat datu, jakingarri eta baliabide eskaintzen dituen CD-Roma ere badakar.



parraldeko **Hizkuntza Politikarako Euskara Bulego Publikoa** ofiziala da azaroaren 26az gero, hau da, Kontseilu Nagusiak eta Hezkuntza Nazionalak sinadura ezarri zuten egunetik. Gisako erakundea abiarazten den lehen aldia da Frantzian, kutsu esperimentalta ere badu, baina kinka larriko egoeran dagoela, bulego sortu berriak eragingo duen hizkuntza politikaren premia larria du euskarak.



Hizkuntzen Ama- rauna proiektuaren berri eman genuen maiatzeko *Berripapera*-ren alean. Orduan esan genuenez, **World Languages Review Synthesis / Munduko Hizkuntzei buruzko Txostena** du egitasmoak oinarri. Orain, berriz, aipatutako txostenaren laburpena kaleratu du UNESCO Etxeak. Argitalpenak hainbat gai lantzen ditu eta, horien artean dira, adibidez, hizkuntz aniztasunaren ikuspegi ekologikoa, hizkuntzek jasaten dituzten mehatxuak, edo hizkuntzen etorkizuna.

euskararen BERRIPAPERAA euskararen BERRIPAPERAA euskararen BERRIPAPERAA

Jakinekoea denez, **euskara hutsez egindako prentsa idatziak** inoiz izan ez duen indarrik eta hedapenik handiena du. Asko hazi zaio euskarazko prentzari merkatua. Argitalpenen zein kazetarien kopurua handia da. Irakurleen tasak ere gora doaz. Argitalpen askoren arrakasta nabarmena da. Diru-baliabideak ere, publikoak zein pribatuak, tainainakoak dira. Hala ere, euskararen normalizazioan estrategikotzat begiz jota dagoen arlo honetan bide luzea egin beharko da eta, era berean, hamaikatxo erabaki sendo hartu.

Hona hemen, hutsune edo okerrik ezean, esandako prentsa idatziaren nondik norako laburra:

Astekaria
Aldaketa 16 (Euskal Herria)
Anboto (Durangaldea)
Arretzagazeta (Arretxabaleta, Eskoriatza eta Gatzaga)
Argia (Euskal Herri osoa)
Arrasate Press
Astehenekoa Goienkaria (Debagoiena)
Barren (Elgoibar eta Mendaro)
Berrigara (Bergara, Elgeta eta Antzuola)
Eta Kitto! (Eibar)
Goienkaria (Debagoiena)
Guaixe (Sakana)
Herria (Iparraldea)
Irutxulo (Donostia)
Maxixatzen (Azkoitia)
Zabalik (Euskal Herria)

Hilabetekaria
Aikor (Txorierri)
Arranondo (Ondarroa)
Artandape (Arrigorriaga, Ugao, Zaratamo eta Arrankudiaga)
Artzape (Getaria)
Baleike (Zumaia)
Begitu (Arratia, Ubide eta Zeberio)
Berriketan (Deba)
Berton (Bilboko Mahatserria)
Danbolin (Zestoa)
Drogeteniturrri (Ermua eta Mallabia)
El Social (Basauri)
Geu (Gasteiz)
Irunero
Kalaputxi (Mutriku)
Kontzejupetik (Oñati)
Malioppe (Araitz)
Otamotz (Urretxu eta Zumarraga)
Prest! (Deustualdea)
Uztarrria (Azpeitia)

Egunerokoa
Berria (Euskal Herri osoa)
Hernaniko Kronika
Hitza. Goierriko Hitza
Hitza. Lea-Artibai eta Mutrikuko Hitza
Hitza. Oarsoaldeko Hitza
Hitza. Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitza
Hitza. Urola-Kostako Hitza

Astean bi
Txintzarri (Lasarte-Oria)

Hamaboskaria
Aiurri (Beterrri-Aiztondo)
Akatz (Bermeo)
Galtzaundi (Tolosa)
Goierritarra
Karkara (Orio/Aia)
Noaua! (Usurbil)
Pilpilean (Soraluze)
Ttipi-Ttapa (Bera)
Txaparro (Zarautz)
UK (Uribe-Kosta)

Hizkuntzen mundua, Munduko hizkuntzak", Parisko **Expo-langues azokak** urtero berritzen duen lema da. Aurten ez da ezberdin izango: otsailaren 9an hasi eta 12a bitarte munduko hizkuntza eta kultura askoren topagune egingo da azoka 23. urtez.



Urtero bezala, herrialde jakin bati jarriko dio arreta: aurten, Polonia ohoratuko dute. Bestalde, eta ohi denez, euskarak ere leihoa irekiko du Parisen Eusko Jaur-laritzako Kultura Sailaren estand-aren bidez.



Tinko euskara elkartea egin da 2004ko Anton Abbadia sariaren jabe. Elkartea duela 11 urte hasi zen filmak euskaraz bikoiztu eta proiektioak areto komertzialetan bultzatzen. Egindako lanaren errekonozimendua jaso du orain, Gipuzkoako Foru Aldundiak eraturako sariaren bitartez.

Anton Abbadia sariaren bidez, instituzioek, entitateek eta pertsona fisikoek euskararen erabilera bultzatzeko egiten duten lana saritu nahi du Gipuzkoako Kultura eta Euskara Sailak.

Harry Potter ezagunaren bosgarren liburua ere euskaraz da: **Harry Potter eta Fenixaren Ordena**. Aurreko laurak bezala, Iñaki Mendigurenek itzuli du euskarara eta Elkar argitaletxeak jarri du merkaturuan. 5.000 aleko tirada egin dute, J.K. Rowling-en pertsonaje ezagunak euskaraz duen harrera onaren lekuko.



Aipatzekoa da, bestalde, Iñaki Mendigurenek 2002ko Itzulpen onenaren Euskadi Saria jaso zuela *Harry Potter eta sekretuaren ganbera* lanarekin.

Pasa den udan HPSko Koordinazio Zuzendaritzak **gogobetetasun inkesta** bidali zien Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia garatzen ari diren toki entitateetako



ordezkari politikoei nahiz teknikariei, ezinbestekotzat jotzen duelako erabiltzaileen iritzia ezagutzea, jarduera hobetzeko.

Emaitza nagusiak ikusita, oro har esan daitezke EBPN garatzen ari direnek ontzat eman dituztela EBPN udal mailan garatzeko finkatutako prozedura, metodologia eta baita baliabideak ere. Orokorrean Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak EBPN garatzeko finkatutako urratsak beharrezkoak eta lagungarriak direla uste dute erabiltzaileek.

Erakunde bakoitzak 2003ko kudeaketa-planaren ebaluazioa egin ostean, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak erakunde guztien betetze-mailaren gaineko irakurketa eta ebaluazio orokorra egin, eta aurkeztu zien udaletako euskara-teknikariei.

2003an bezala, 2004. urteko kudeaketa-planaren gaineko ebaluazioa egin beharko dute teknikariek, beraien egitekoaren betetze-maila neurtzeko. Lan horretan, 2003ko 13 erakundeez gain, 2004an beste 31 udal eta bi mankomunitate ere aritu dira. Beraz, guztira, 46 erakundek egin beharko dute **EBPN** garatzeko 2004ko kudeaketa-planaren ebaluazioa.

Horrekin batera, 2005ean beste 36 erakundek jarriko dute indarrean lehendabiziko urteko kudeaketa-plana. Guztira, beraz, 94 udaletan garatuko da EBPN 2005ean.



Aurreko urteetan jorratutako bideari jarraituz, kalean da 2004-2005 ikasturteari dagokion **NOLEGA programa** (Normalizazio Legearen Garapena). Programa hori, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak sortutakoa, euskarazko zein euskararen irakaskuntza eskaintzen duten ikastetxeen normalizazio-lanaren zenbait alderdi sakundu eta indartzera dator. Besteak beste, honako laguntza eta diru-laguntza hauek bideratuko ditu aurtengoan: normalizazio plan integralak, errotulazioa, ahozko adierazpena (eskola antzerkia, bertsogintza, kantagintza, irratigintza, kontalaritza), euskal girotze egonaldi eta barnetegiak, literatura eta deklamazio sariak (Urruzuno eta Barriola sariak), eta gelaz kanpoko ekintzak. Informazio zehatza, www.ulibbarri.info web gunean.



HPSko EBPNren Jarraipenerako Zerbitzuak abian jarri ditu, EBPN garatzen ari diren udaletako teknikariei zuzenduta, **euskararen normalizazioaren eta sustapenaren gaineko hainbat aurkezpen.**

Horrela, 2004ko azaroaren 10ean, Donostiako Miramar Jauregian, Euskararen Aholku Batzordean landutako bi gai aurkeztu ziren: Euskararen kalitatea, bata, eta, Euskalduntze-alfabetaztearen etorkizuna, bestea.

Kataluniako Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusia, Québeceko Office de Langue Française eta Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza elkarlanean arituko dira **hizkuntza-adierazle**en gaia jorratzeko. Lan-lerro berri horren lehenengo urratsa hiru erakundeez hizkuntza-adierazleen alorrean egindako lana erkatzea izango da, eta bigarrena oinarrizko adierazleak elkarrekin definitzen hasia.

2003an hamahiru erakundek (12 udal eta mankomunitate batek) onartu zuten Plan Estrategikoa eta jarri zuten abian lehendabiziko kudeaketa-plana.

Datu pertsonalak babesteko 15/1999 Lege Organikoan ezarritakoa betez, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak jakinarazten dizu inprimaki honen bitartez jarritako zure datu pertsonalak fitxategi automatizatu batean sartuko ditugula, ondoren, agerkari hau zabaltzeko eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren zenbait argitalpenen berri emateko. Aipatutako Lege horretan jasotzen den moduan, datuak ikusi, zuzendu edo ezabatu nahi dituzula edo ez dituzula jarri nahi adierazteko, honako helbide honetara jo dezakezu: Kultura Saileko Euskara Sustatzeko Zuzendaritza / Donostia kalea, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

Euskararen Berripapera zure etxean doan jaso nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan:
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza / Donostia-San Sebastián, 1 / 01010 Vitoria-Gasteiz (Araba) / Tel.: 945 01 81 16 • e-posta: l-sosoaga@ej-gv.es